

Mariano Mendigatxa Ornat eta Erronkaribarko *uskara*

Mariano Mendigatxa Ornat y el *uskara*
del Valle del Roncal

Mariano Mendigatxa Ornat et l'*uskara*
de la vallée de Roncal

Mariano Mendigatxa Ornat
and Roncal Valley's *uskara*

PÉREZ ARTUTX, Gotzon
Bidankozarte Ekimena

Noiz jaso: 2018-11-27
Noiz onartua: 2019-04-03

Euskera. 2018, 2, 1. 393-417. Bilbo
ISSN 0210-1564

Mariano Mendigatxa bidankoztarra ezinbesteko pertsona dugu erronkarieraren inguruko ikerketan. Euskalkiaren gainbehera goitik behera bizitutakoa, Bonaparteren eta Azkueren laguntzaile izan zen, eta berak itzultitako hainbat testu baditugu, baita Erronkaribarko uskararen aditz-jokoa, hiztegi zabal bat eta interes etnografikoko beste hainbat kontu ere (abestiak, esaera-zaharrak, ipuinak, ohiturak...). Marianoren heriotzaren mendeurrena bete berri denean, une aproposa dugu haren biografia ezagutzeko.

Hitz gakoak: Mendigatxa, Bidankoze, erronkariera, euskararen historia, Bonaparte, Azkue.

El bidangoztar Mariano Mendigatxa es una figura esencial en el estudio del *uskara* roncalés. Vivió el declive del dialecto de principio a fin, fue colaborador de Bonaparte y Azkue, y realizó la traducción de diversos textos, así como la conjugación verbal completa en el euskara del Valle de Roncal, un extenso vocabulario y legó también un amplio material etnográfico (canciones, proverbios, cuentos, costumbres...). Cuando se acaba de cumplir el centenario de la muerte de Mariano, vemos un momento idóneo para conocer su biografía.

Palabras clave: Mendigatxa, Vidángoz, *uskara* roncalés, historia del euskera, Bonaparte, Azkue.

Mariano Mendigatxa, originaire de Vidángoz, est un personnage essentiel dans la recherche sur le dialecte roncalais. Il fut un collaborateur d'Azkue et de Bonaparte dans ces recherches et il fut témoin du déclin de ce dialecte. Nous connaissons plusieurs textes traduits par lui : les formes verbales du roncalais, un important dictionnaire, ainsi que d'autres textes d'un grand intérêt ethnographique (chansons, proverbes, contes, coutumes...). La célébration du centenaire de la mort de Mariano est une magnifique occasion de mettre en lumière sa biographie.

Mots-clés : Mendigatxa, Vidángoz, roncalais, histoire de la langue basque, Bonaparte, Azkue.

Mariano Mendigatxa, from Vidangoz, is an essential personality in the research of the Roncal Valley's Basque. He lived the decline of the dialect from beginning to end, he was collaborator for Bonaparte and Azkue, translated several texts, completed the Roncal Valley's Basque's verb conjugation, and left a wide vocabulary and a large ethnographic material (songs, proverbs, tales, customs...). When we have just commemorated the centenary of his death, it is an ideal time to know more about his biography.

Key-words: Mendigatxa, Vidangoz, Roncal Valley's Basque, Basque's history, Bonaparte, Azkue.

Artikulu honetan aurkeztuko dena ziur asko pertsona ezezaguna izango da gehienentzat, eta soilik euskal filologiako adituek orokorrean eta, bereziki, dialektologiakoek izango dute haren berri. Izan ere, Mariano Mendigatxaren garrantzia Erronkaribarren hitz egiten zen desagertutako euskalkiaren (*uskarraren*) ikerketan hizkuntzalari handiei eskainitako laguntzatik dator.

Marianok bere bizitza osoa Bidankozen eman zuen, Nafarroako Erronkaribarko herri txikienetakoa den horretan, 1832 eta 1918. urteen artean. Bere jaiotzaren garaia zein ingurua irakurlearentzat ezezagunak izan daitezkeelakoan, XIX. mendearen hasierako Bidankozeri hurbilketa bat egiten saiatuko naiz.



Almadia bat Bidankozen, zura ibaian behera garraiatzeko modua

Testuinguru historikoa

Garai hartako Erronkaribarko bizibide nagusiak bi ziren: artilearen ekoizpena, eta zuraren garraira eta salmentara bideratutako basogintza. Artalde transhumanteek Erronkaribarko gainetako larreak Bardeakoekin aldizkatzten zituzten. Horretaz gain, zura eta basoko bestelako ekoizpenak almadia

ospetsuekin garraiatzen zituzten, bai Ezka ibaian, bai Aragoi ibaian eta, ondoren, Ebro ibaian, hainbatetan honen bokaletik gertu dagoen Tortosaraino (Tarragona) iritsi arte.

Egoera historikoari dagokionez, XVIII. mendearen azken hamarkada zein XIX. mendearen lehenengo erdia zorigaitzokoak izan ziren Erronkariko ibarrentzat: 1793. eta 1839. urteen tartean ibarrak lau gerra pairatu zituen bere barnean. Lehenengo biak «inbaditzaile frantsesaren aurkako borroka» bezala hartuta [Konbentzio Gerra (1793-1795) eta Independentzia Gerra (1808-1813)] eta hurrengo biak, berriz, gerra zibilak [Gerra Errealista (1821-1823) eta I. Karlistaldia (1833-1839)]. 46 urteko epean 19 urtez gerrak astindua egon zen (Idoate, 1975), eta honi gehitu beharko genioke gatazka bakoitzaren ondoren zetorren gerraostea.

Lehenengo gerratik Erronkaribar onik atera zen gutxi gorabehera; izan ere, egindako zerbitzuek Espainiako erregearen esker ona izan zuten, eta honek ibarraren armarrarian jartzeko bi lauki berri eman zituen (indarra adierazten zuen gaztelu bat eta ekintzetan azkartasuna ordezkatzeko zuen erbi-txakurra).

Bigarren borrokak, berriz, askoz emaitza txarragoa izan zuen, frantsesek Burgi eta Izaba guttiz kiskali baitzituzten, eta baita Urzainki eta Erronkari herrien zatiak ere. Hau gutxi balitz bezala, Erronkariko ibarrak ahalegin ekonomiko handia egin behar izan zuen Napoleonen armadaren aurrean kapitulazioa ematean.

Hirugarren gatazka, Gerra Errealista, ez da oso ezaguna orokorrean, beharbada garrantzi eta eragin handiagoko bi gerren artean gertatzeagatik, baina guda honek eragin berezia izan zuen Erronkaribarren, bertan sortu baitzen, Uztarrozen hain zuzen ere, Nafarroan egon zen bando baten armada, Nafarroako Errege Dibisioa, eta Bidankozen bertan gertatu baitzen hauen eta armada liberalaren arteko lehenengo talketako bat (Martín, 1825).

Denboraldi honen laugarren guda I. Karlistaldia izan zen, sei urtez luzatu zen gerra zibil odoltsua, eta, Nafarroarentzat orokorrean (erresuma izatetik Espainiako probintzia izatera pasatu zen, horrek ekarri zituen aldaketa guztiekin) zein Erronkariko ibarrentzat bereziki, ondorio larriak izan zituena.

Ondoriozta dezakegunez, gatazka hauek guztiek eta haien ondorioek eragin zuzena izan zuten jendearen bizimoduan, eta gosearen eta gaixotasunen ondorioz heriotza-tasak gora egin zuen. Ez zen izan, berez, bizitzeko garai ona.

Mariano Mendigatxaren sendia

Testuinguru historiko horretan jaio zen Mariano Mendigatxa, zehazki 1832ko otsailaren 10ean¹, I. Karlistaldia lehertzeko bezperan (1833ko urrian) eta, azaldu den moduan, gerrek akitutako lurralde batean. Ezohiko garai batean jaio zen, bai, baina baita ezohiko sendi batean ere, jarraian erakutsiko den moduan. Artzaintza, nekazaritza edo basoko ekoizpena bizimodutzat zituen herri batean, Mendigatxaren aita, Manuel Mendigatxa Martín, Bidankozeko Mendigatxa etxean jaioa, neurri baterainoko ibilbide militarra egin zuen gutxietako bat izan zen, ez bokazioz, ziur asko bere garaioko egoerak bultzatuta baizik.

Oraingoan ez dugu Manuel Mendigatxaren bizitza sakonki aztertuko, baina azpimarratzekoa da lehenago aipatutako lau gudek markatuta egon zela: bere aita Konbentzio Gerran hil zen², bera lau urte eskaseko haurra besterik ez zenean. Independentzia Gerran parte-hartzaile izan zen³, ziur asko bere adinak eta jatorriak bultzatuta (18 urte zituen gatazka hasi zenean eta Erronkaribarkoa zen, gerra egoeran berezko armada sortuko zen ibarrekoa). Gerra Errealistan soldadu gisa agertu zen hasieratik, eta guda amaitu zenerako teniente maila lortu zuen⁴; eta I. Karlistaldian, Erronkaribar eta Zaraitzuko karlisten buruzagietako baten gisa ageri zen.

Marianoren amari dagokionez, Melchora Ornat Hualde, Bidankozeko Ornat etxean jaioa zen, eta hari buruz askoz gutxiago dakigu, baina esan

¹ Bidankozeko Parrokia Artxiboa (BPA), Bataiatuen 2. liburua, 359 atz. or.

² BPA, Hildakoen 2. liburua, 52. or.

³ Erronkaribarko Batzordeko Artxiboa, 6. kutxa, 4. dokumentua – 1808-1809: Lista de la gente armada en el valle de Roncal.

⁴ Segoviako Artxibo Militar Nagusia, Manuel Mendigacharen espediente pertsonala (Inf. 1821).

dezakegu bere biografia ere gerrek markatuta dagoela. Izan ere, izena Melchor Ornat erronkariarrari zor dio, bere osaba eta bataioko aitabitxiari, eta bera izan zen Independentzia Gerran Napoleonen armadarekin kapitulazioa negoziatzeko arduraduna, eta Gerra Errealistan Nafarroako erresumako Errege Ogasunaren administrari orokorra izendatu zuten behin-behinean (Martín, 1825). Aurrerago ikusiko dugun moduan, I. Karlistaldiak ere markatu zuen bere bizitza.

Kontua da Marianoren gurasoak, ziur asko, garaiko ezegonkortasunaren ondorioz, nahiko adinduak ezkondu zirela: aitak 39 urte zituen eta amak, berriz, 32. Manuelen ibilbide militarra 1821etik 1827ra luzatu zen, eta lizentziatu zenean Bidankozera itzuli zen, Mendigatxa etxeko premua izanda sortetxearen biziraupena bere esku baitzegoen. 1829an⁵ ezkondu zirenerako, Mendigatxa etxean ez zen inor geratzen, ez Manuelen gurasoak (ama hil zen ezkontza baino urte bat lehenago⁶), ez osaba-izebarik, ezta bere arreba bakarra ere, 1825ean⁷ Bidankozen ezkondu arren, egungo Xereno etxera pasatua baitzen bizitzera. Hurrengo urtean, ohi bezala, bikotearen premua jaio zen, Pascual Isidoro⁸, baina urte eta erdi bete orduko hil zen⁹, dirudiezez izurri txikiren baten ondorioz, beharbada noizbehinka izaten zen hesietako infekzioaren batek jota (orduko hartan, hilabete eskas batean zortzi haur hil ziren Bidankozen). Lehenengo seme hau hil eta lau hilabetera Mariano Mendigatxa jaio zen, artikulu honetako protagonista.

Mariano Saturnino Mendigatxa Ornat 1832ko otsailaren 10eko gaueko 11etan etorri zen mundura, eta bi egun geroago, otsailaren 12an, bataiatu zuten (Auñamendi Entziklopedia¹⁰ eta beste argitalpen batzuetan datu okerra ageri da, 12an jaioa zela baitiote). Jarri zizkioten bi izenetatik lehenen-

⁵ BPA, Ezkonduen 2. liburua, 96. or.

⁶ BPA, Hildakoen 2. liburua, 110 atz. or.

⁷ BPA, Ezkonduen 2. liburua, 92. or.

⁸ BPA, Bataiatuen 2. liburua, 356. or.

⁹ BPA, Hildako haurren 1. liburua, 4 atz. or.

¹⁰ <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/mendigacha-ornat-mariano-saturnino/ar-94571/> (2018/11/15ean bisitatua).

goa bere aitabitxiari zor dio, amaldeko osaba zen Mariano Omat Hualderi, eta bigarren izena, berriz, bere bataioaren eguneko santuetako bati, Kartagoko San Saturninori. Izena jartzeko arrazoi bi hauek oso ohikoak ziren garai hartan.

Marianok urte eta erdi besterik ez zuenean hasi zen I. Karlistaldia, eta, dirudienez, bere aita berriro mobilizatu zen, Erronkaribar eta Zaraitzuko hiru buruzagi karlistetako bat zelako, Mantxo zaraitzuarrekin eta Mariano Salbotx apaiz bidankoztarrarekin batera (*Eco del Comercio*, 1835). Gerrako lehenengo urtea pasata, gure ibarretako karlisten zortea okertzen hasi zen: lehenik, Mantxo galdu zuten 1834ko amaieran Aizpurgiko arroilan¹¹; urte erdi bat geroago, 1835eko ekainean, Zumalakarregi karlisten burua; jarraian, urte bereko uztailean, Ezkarozen erretore zegoen Mariano Salbotx apaiza akabatu zuten Garden¹²; eta amaitzeko, 1835eko abenduan, Manuel Mendigatxa erail zuten Bidankozen bertan¹³. Era honetan, liberalek Erronkaribar eta Zaraitzuko karlistak amaitutzat eman zituzten.

Garaiko prentsa liberalak zioenez, Kataluniako kanpaina batean parte hartu ondoren, Bidankozen egoteko lizentzia zuen itxura egiten aritu zen, baina egiaz bera eta beste karlista asko ezkutatuta zeuden herrian. Abenduaren 5eko gauean Barrikart senide erronkariarren agindupeko «Kristina Andrearen tropa bat» Mendigatxa etxe aurrera bertaratu zen, eta gaur egun Bidankozen, ia 200 urte geroago, oraindik gogoratzen den esaldi famatua esan omen zuten: *Mendigatxa, manukortu!* (*Mendigatxa, amore eman!* edo *iMendigacha, ríndete!*). Gaueko iluntasunaz baliatuz, Manuel etxeko gibelaldetik ihes egiten saiatu zen, baina tiro batek atzeman zuen eta baionetakadaz garbitu zuten, egunkari liberalek zein Bidankozeko Parrokiako Artxi-boan dagoen heriotza agiriak ziurtatzen duten moduan. Dirudienez, gau odoltsua izan omen zen hura, hildakoen liburuetan bestelako inskripziorik ez egon arren (beharbada haien hiletak beste parrokiaren batean egin izanagatik, edo, beharbada, haien nortasuna ez ezagutzeagatik), gainerako

¹¹ Madrilgo Artxibo Militar Nagusia, 6310.30.

¹² BPA, Hildakoen 2. liburua, 118. or.

¹³ BPA, Hildakoen 2. liburua, 119. or.

guztian ustez gertatu zenarekin bat zetorren prentsak beste lau karlista hil eta zortzi gehiago gatibu hartu zituztela zioen, tartean bi ofizial eta apaiz bat, besteak beste.



Bidankozeko Mendigatxa etxea, Mariano jaio, bizi eta hil zen tokia.
[Iturria: Bidankozarte argazki funtsa]

Horrela, lau urte bete aurretik Mariano Mendigatxa umezurtz geratu zen eta bere ama ere antzeko moduan, azken finean, gerra galduko zuen bandoaren buruzagi baten alargun gelditu zen, eta hau guztia, historialarien arabera, alderdi liberalarekin zaletasun handiagoa zuen ibar batean (Idoate, 1977). Mariano eta bere amarentzat, beraz, etorkizunak ez zuen itxura onik. Aurreko guztia gutxi balitz bezala, Melchora Ornatek zuen anaia bakarra ere, Mariano izenekoa eta Mariano Mendigatxaren aitabitxia, une latz hauetan euskarri izan zitekeena, aita baino berrogei egun lehenago zendu zen¹⁴. Horrela, Bidankozen geratzen zitzaizkien ahaide bakarrak Melchoraren aita eta anaiorde bat ziren, Pascual Ignacio Ornat eta Fermin Francisco Ornat, herriko Ornat etxean bizi zirenak.

¹⁴ BPA, Hildakoen 2. liburua, 118 atz. or.

Haurtzaroa eta gaztaroa

Marianoren testuinguru familiarra ezagututa, lehenengo urteak zailak izango zituela pentsatzea logikoa dirudi. Honi dagokionez, Mendigatxaren inguruan ematen diren ohar biografiko laburretan (horietako asko Auñamendi Entziklopedian Bernardo Estornés Lasak idatzitakoan baitaude oinarrituta) Bidankozeko eskolan oinarritzko ikasketak besterik ez zituela egin esan ohi da, baina, egia esan, Marianoren haurtzaroaz zein gaztaroaz ezer gutxi eman dezakegu ziurtzat. Sortu ahal zaigun lehenengo zalantza gerra eta gerraosteko garai haietan eskolaren beraren funtzionamenduaren inguruan dugu. Bada, dirudienez, Bidankozek, eskola zerbitzuari eustez gain, 1787tik 1841era¹⁵ maisu berbera izateko zortea izan zuen, Pascual Ramón Nicolao ibili baitzen lanbide horretan. Garden jaioa eta Bidankozen ezkondua zen, eta, beraz, Mendigatxaren jaioterrian hitz egiten zen azpieuskalkia bera hitz egingo zuena (erronkarierako Bidankozeko azpieuskalkia Bidankozen, Burgin eta Garden hitz egiten zen). Beste edozein eremutan penagarri izan ziren bost hamarkada horietan zehar maisu honen iraunkortasunak berebiziko garrantzia izan zuen, bada, Erronkaribarko herri honetako *uskararen* iraupenean.

Beraz, Marianok Bidankozen ikasi bazuen, maisu on batengandik ikasteko aukera izan zuen, edo hala pentsa dezakegu lanpostuan izandako iraunkortasunari erreparatzen badiogu. Alabaina, ez dugu baieztatzeko modurik, eta, gainera, zortzi urte zituenean Mendigatxa Bidankozen zegoela baieztatuhalko zuen agiri bakarrean ez da ageri. Herriko parrokiari egindako 1840ko sendotzako sakramentuaz ari gara, eta logikoena litzateke bertan egotea, une hartan herrian baldin bazegoen, baina ez da ageri¹⁶. Gertaera honek hainbat azalpen izan ditzake, baina, nire ustez, litekeenak diren biak besterik ez ditut aipatuko. Lehenengo aukera zera da: ama alargun geratu ondoren, eta herrian ia ahaidetik ez izanda, premiazko lehenengo urte haietan Erronkarin bizi ziren aitaldeko senitartekoekin bizitzera joan izango zirela, eta, era honetan, Marianok sendotza Erronkariko parrokiari hartua

¹⁵ Bidankozeko Aiza Bulguko Artxiboa (BABA), 6., 7., 8. eta 9. kontu-liburuak.

¹⁶ BPA, Sendotzako 2. liburua, 34 atz. or.-37. or.

izango zuela. Proposa dezakedan bigarren azalpena ideologiei lotutakoa egongo litzateke: Manuel Mendigatxa hil ondoren, beharbada handik gutxira edo beharbada I. Karlistaldia amaitzean, baliteke bai Mariano bai bere ama karlista baten ahaideak izateagatik (are gehiago buruzagi batena izanda) deserritu izatea, edo, bestela, herritik alde egin izana haien lotura politikoek ekartzen ahal zituzten arazoak saihesteko. Nolanahi ere, oraindik ez dut teoria bat edo bestea baieztatzeko daturik aurkitu.

Nola edo hala, Marianoren amaren berri dugu berriro 1847an, Bidankozeko Udal Epaitegiko artxiboan gordetzen den ahozko epaiketarik zaharrenean, zeinetan bere nortasuna erakutsiz auzoko bati auzia jarri zion lursailen arteko mugetako kontu batengatik¹⁷.

Sendiari buruz aurki dezakegun hurrengo albistea 1851koa da, eta orduan Melchora Ornatek eta Bidankoze, Garde eta Urzainkiko beste guraso batzuek elkarte bat sortu zuten herri hauei soldadutzara bidaltzea zegozkien bi kintoen ordezkioak erosteko, hau da, gazteren bati ordaintzeko Marianoren edota gainerako kintoen tokia okupa zezan eta, era honetan, herriko semeak herrietan eta etxeetan gera zitezen armadara joan beharrean¹⁸.

Mendigatxa familiaburu

Eta Marianori buruzko bestelako berririk gabe 1852ko uztailaren 19ra¹⁹ iritsi gara, hain zuzen ere, hogeitau urte besterik ez zituela Josefa Pérez Marko uztarroztarrarekin ezkondu zen urtera. Mendigatxa bere garairako ere ezohikoa zen adinean ezkondu zen, baina kontuan izan behar dugu bere jaiotetxearen, bere leinuaren, biziraupena zegoela jokoan, eta galtzeko aukera baztertu behar zen lehen baino lehen. Aipatzekoa da ezkontza Bidankozen ospatu zela, ezkontideak herri ezberdinetakoak zirenean ohikoa

¹⁷ Bidankozeko Aiza Bulguko Epaitegiaren Artxiboa (BABEA), 2. kutxa, ahozko epaiketa zibilak 1847-1870.

¹⁸ Nafarroako Artxibo Nagusia (NAN), Cayetano Martinen Notario Protokoloak (Erronkari), 1851. urtea.

¹⁹ BPA, Ezkonduen 2. liburua, 321 atz. or.

emaztegiaren herrian egitea baldin bazen ere, zein herritan biziko ziren ere kontuan hartu gabe. Halere, esan balar da Josefaren aita ere Bidankozekoa zela, Diego etxekoa hain zuzen ere.

Zeozer berezia izango zuen Mendigatxak 1853an, 21 urte besterik ez zituenean, Aiza Bulguko (Udaleko) poltsazain kargua okupatu zuenean, hau da, kontuen eta diruzaintzaren ardura²⁰. Zaila izango da horrelako postu batean egon den adin horretako beste norbait aurkitzea. Hau izan zen, bada, Marianok bere bizitza publiko luzean zehar izango zuen lehenengo ardura.

Bestalde, arlo ekonomikoan, neurri batean denek egin behar izaten zuten nekazaritzako lanez gain, mendigatxarrek zur ekoizpena ere izan zuten bizi-bide nagusitzat. Gai honetan ere, Mariano pertsona praktikoa dugu, garai hartarako, diru sarrerak dibertsifikatzen zituenetakoa baitzen. Honen lekuko dira 1870eko hamarkadan, baita 1890 eta 1900ekoetan ere, mendigatxarrek izan zuten taberna, eta azken urteetako janari-denda ere bai. Horretaz gain, etxeak alokatzen zituzten, garia maileguan ematen zuten, harategiko ardura ere izan zuten²¹... Marianoren familia, beraz, ez zegoen diru iturri bakar baten menpe.

Bizitza publikoaren hasierarekin batera, bizitza familiarra ere garatzen hasi zen, eta laster jaio zen bere premua, Justo Melchor, bigarren eztei-urteurrenaren bezperan, 1854ko uztailaren 18an²². Bikoteak seme honengan itxaropen handiak jarriko zituela pentsa dezakegu, baina horiek guztiak zapuztu ziren premua 1855eko udazkenaren hasieran hil zenean²³. Uda haren amaiera apokaliptikoa izan zen Bidankozen, izan ere, hiru astetan kolera izurri batek 60 pertsonatik gora hil zituen 400 biztanle besterik ez zuen herrian, hau da, ia sei auzokotik bat zendu zen, beraz, gutxi izan ziren ez-behar honetatik libratu ziren familiak (Pérez Artuch, 2016). Eta hau gutxi balitz bezala, izurria amaitu eta hamar egunera beste agerraldi bat izan zen, kasu honetan, haurren artean gertatu zen hesteetako eritasunen bat, aste

²⁰ BABA, Kontuen 10. liburua (1851-1862), 79. or.

²¹ BABA, 6., 24., 36., 41. eta 48. kuttak: katastro-txostenak.

²² BPA, Bataiatuen 3. liburua, 47 atz. or.

²³ BPA, Hildako haurren 1. liburua, 17. or.

eskas batean bost haur hil baitziren, haien artean Mariano eta Josefaren premua, eta hauei kolera izurriaren azken egunetan hildako beste zazpi ume gehitu beharko genizkieke. Dena den, eta seme bat galtzea beti gogorra dela jakin arren, garai hartako heriotza-tasa handia aintzat hartu behar dugu, eta arraroa izaten zen seme-alabetakoren bat galtzen ez zuen familia.

Nolanahi ere, premua hil zenerako bigarrena bidean zetorren, eta 1856ko otsailaren 17an jaio zen Francisco Simeón²⁴, bere anaia hil eta lau hilabete eskas geroago. Jaiotza hau Bidankozeko gertaera historikotzat jo dezakegu, Erregistro Zibila ezartzeko lehenengo saiakeran inskribatu zen lehenengo jaiotza baita²⁵. Bi urte geroago Ramona Inés jaio zen, 1858ko apirilaren 20an²⁶. Bi seme-alaba hauek izan ziren gerora Bidankozen geratuko zirenak, eta bakoitzak zein baldintzatan egin zuen aurrerago azalduko dugu.

1859. urtearen hasierarekin batera, Mendigatxak Bidankozeko alkatetza eskuratu zuen lehenengo aldiz²⁷, eta bertan bi urte eman zituen, ohikoa zen moduan. Agintaldi honen amaieran, 1860ko azaroaren 16an, bere laugarren semea etorri zen mundura, Manuel Rufino²⁸, bi urte bete gabe 1862an hilko zena hau ere²⁹. Eta handik gutxira, 1863ko azaroaren 22an, Eusebia Felicia jaio zen³⁰, eta berarekin osatu zen Mariano eta Josefaren leinua.

Louis-Lucien Bonaparterekin elkarlanean

1866ko martxoaren hasieran Louis-Lucien Bonaparte printzeak Bidankoze bisitatu zuenean ezagutu zuen Mariano. Ezin dugu ziurtatu, ordea, haien arteko lehenengo kontaktua izan ote zen, Erronkaribarko norbaitek

²⁴ BPA, Bataiatuen 3. liburua, 51 atz. or.

²⁵ BABELA, 2. liburua – Jaiotakoak (1856-1870), 1. or.

²⁶ BPA, Bataiatuen 3. liburua, 58 atz. or.

²⁷ BABA, Akten 7. liburua (1853-1862), 292 atz. or.

²⁸ BPA, Bataiatuen 3. liburua, 67. or.

²⁹ BPA, Hildako haurren 1. liburua, 19 atz. or.

³⁰ BPA, Bataiatuen 3. liburua, 77 atz. or.

(ez baitakigu ez nork ez zein herritakoak), agian Prudencio Hualde apaizak, agian Mariano Mendigatxak berak edo agian beste norbaitek, ordurako *Canticum trium puerorum in XI vasconice linguae dialectos ac varietates versum* itzulia baitzuen Bonaparterentzat 1858an. Hala ere, agiri horren Erronkaribarko uskararako itzulpena eta antzeko eran 1869an argitaratuko zena (*Le cantique des trois enfants dans la fournaise dans les dialectes basques d'Aezcoa, de Salazar et de Roncal*) alderatzen baditugu, ezberdintasun nabariak agerian geratzen dira, eta, ondorioz, lehenengo lekukotasun hori beste herri batean jaso izango zelakoan nago.

Dena dela, Bonaparte Bidankozera iritsi zen garaian, bertan uskara oraindik indartsu zegoela ikusi zuen, eta horrela adierazia zuen 1863an egindako mapan, *Carte des sept provinces basques montrant la délimitation actuelle de l'euscara et sa division en dialectes, sous-dialectes et variétés* famatuan. Honen adierazle da, Bonapartek Nafarroako bere laguntzaileei Erronkaribarko uskara aztertzeko herririk egokienaren inguruko aholkua eskatzean, hizkuntza hobekien mantentzen zuen herriaz galdetzean, hauek Bidankoze seinalatu izana (Urquijo, 1910). Hala eta guztiz ere, badirudi uskara lehenengo urratsak gainbehera egiten hasia zela ordurako, nahiz eta oraindik oso nabaria ez izan.

Horrela, eta behin Mendigatxaren jaioterria aukeratuta Erronkaribarko euskalkia ikertzeko, Prudencio Hualde erretorea laguntzaile aukeratu izana logikoa dirudi, bere kargua zela-eta herriko gehiengoak baino kultur maila handiago zuelako, alde batetik, eta, bestetik, bertakoa zelako, herrian jaioa, eta, horren ondorioz, bere sorterriko hizkera menderatzen zuelako. Bonapartek maiz aukeratu zituen apaizak laguntzaile, haien prestakuntzarengatik eta baita euskalki ezberdinak alderatzeko testu erlijiosoak erabiltzen zituelako ere. Zertxobait arrarago egiten zaigu Bonapartek herri berean bi laguntzaile izatea, eta horregatik, printzipioz kultur maila txikiagokoa eta gazteagoa zen Mendigatxarengan uskararekiko gaitasun berezia ikusiko zuelakoan gaude.

Litekeena da bisita hartan, beste oharren artean, Bidankozeko hizkerarako hainbat hitzen itzulpena idatzi izana, geroago Urzainkiko eta Uztarrozeko azpieuskalkietako baliokideekin alderatuko zuena (Bonaparte, 1866).

Aukera honetan ere *Astete aitaren katixima* itzultzeko enkargua egingo zuen, Prudencio Hualdek uda baino lehen beteko zuen lana, eta, beharbada, *Gore Geinaren Ebanjelio Santua segun San Mateoren* itzulpena (Hualde, 1866), orduko herriko apaizak egindakoa hura ere. Hala ere, ezer gutxi dakigu printzearen bisitaz, soilik Bidankozen sukarren bat izan zuela eta jasotako zaintzak eskertu zituela (Rodríguez-Ferrer, 1873). Izan ere, bidaiaria honetatik Londresera bueltatu zenean, erronkariarrengandik jasotako iritzi ona erakutsi zuen, haien suhartasuna, adimena eta abegi ona azpimarratuz, inguru latz batean bizi arren: elurrak, amildegiak, hartzak, otsoak... (Bonaparte, 1867).

Hurrengo neguan Mendigatxa Bidankozeko alkatetzara bueltatu zen³¹, bigarren agintaldi hau 1867. eta 1868. urteetan zehar luzatuz. Urte bat geroago, 1869an, Bonapartek gure lurraldea berriro bisitatzeko asmoa zuen euskalkien inguruko bere ikerketetan sakontzeko, baina Espainian bizi zen egoera politiko eta sozial nahasiak iritzi aldazki zuen, eta, berak bidaiatu ordez, bere laguntzaileak Donibane Lohizunera deitu zituen (Riezu, 1958). Topaketa hartara joan zen Mendigatxa, eta, bere laguntzarekin, Bidankozen hitz egiten zen *uskararen* aditz-jokoa osatzea lortu zuen. Lan hau, lehen aldiz tauletan antolatuta eta zutabetan Aezkoako, Zaraitzuko zein Erronkaribarko aditz-formak erakusten zituena, 1872an argitaratu zen *Études sur les trois dialectes basques des vallées d'Aezcoa, de Salazar et de Roncal, tels qu'ils sont parlés à Aribé, à Jaurrieta et à Vidangoz* izenburupean. Baliteke 700 hitzeko frantsesa-aezkera-zaraitzuera-erronkariara hiztegitxoa (Mitzelena, 1958) ere egonaldi honetan sortua izatea, Bonaparteren egiletza ziurtatuta ez egon arren, itxura guztien arabera hark egin dirudi. Bi kasu hauetan, Pirinioetako hiru ibarretako euskalkiak alderatzen saiatu zen.

1869ko udan Donibane Lohizunen igarotako egun haietakoa omen da Mariano Mendigatxaren argazki ezagun bakarra, erretratatu duen pertsona gain, bestelako garrantzia ere baduena: erronkariar bat eta haren ohiko janzkera ezagutzera ematen dituen lehenengo argazkia da (lerro hauen ondoan dagoena). Azkenik, baliteke bilera hartakoa izatea *Berrogeita hamar-*

³¹ BABA, Akten 9. liburua (1866-1872), 58. or.

garren salmoaren itzulpena ere, Mendigatxa bidankoztarrak egina, urte hartan berean argitaratu zena (Bonaparte, 1869).



Mariano Mendigatxa (Donibane Lohizune, 1869).
[Iturria: Bidankozarte argazki funtsa]

Baina, gainera, egonaldi honek Louis-Lucien en eta Marianoren arteko harreman pertsonala sortzeko balio izan omen zuen. Pentsatu ahalko genuen Mendigatxak Bonaparterenganako zuen errespetua edo mirespena goi-mailako ikerlaria eta aristokraziako kidea izateagatik izango zela, printze

bat, alegia, baina, horren inguruko datu gehiegi ez izan arren, badirudi Bonapartek ere estimu handian zuela Mariano, eta horren seinale gisa uler dezakegu Bonapartek Arturo Campióni bidali izana Mendigatxak *Orreaga* baladaren erronkarierarako itzulpenari egindako zuzenketak (Bonaparte, 1879).

Ez dakigu, ordea, geroago Mendigatxak eta Bonapartek posta bidezko harremanik izan zuten edo berriro elkartu ote ziren, baina bitxia da elkarri utzi zioten arrastoa, hainbat urte igarota ere (Bonapartek *Orreagaren* itzulpenaren zuzenketan Marianori buruz esandakoa 1879koa da, eta Mendigatxak printzearen inguruan idatzitakoak Azkueri bidalitako eskutizetan aipatutakoak dira, hau da, 1902-1916 aldikoak) elkarrenganako begirune handiz aritzen baitziren. Nola edo hala, Arturo Campiónentzat egindako itzulpen txiki hori salbuespentzat hartuta, badirudi Marianok ez zuela *uskarazko* bestelako lanik egin, hiru hamarkada geroago Azkuerekin harremanetan sartu zen arte.

Erronkariko *uskararen* gainbehera

Bonapartek deitutako Donibane Lohizuneko topaketa haren ondoren 1870eko hamarkada iritsi zenean, Erronkaribarren orokorrean zein Bidankozen zehazki izugarritzko atzerakada izan zen *uskararen* erabileran. Mendigatxa etxean, hala ere, badirudi hizkuntzaren erabilerari pixka bat gehiago eutsi ziotela, aurrerago erakutsiko dudan moduan. Hamarkada ez zen ongi hasi familiarentzat, 1870eko maiatzaren 26an hil baitzen Marianoren ama, Melchora Ornat³², une gogoangarria *uskarak* etxean izan zuen bilakaerari dagokionez, nahiz eta oraindik *uskara* erabiltzen zuten. Izan ere, Marianok zuen *uskararen* ezagutza amari zor zion neurri handi batean, hura izan baitzen ezkondu arte izandako euskarri bakarra. Era berean, Josefa bere emazteaz gain, Melchora amak ere garrantzi handia izan zuen Mendigatxaren seme-alabenganako erronkarieraren transmisioan.

³² BPA, Hildakoen 3. liburua, 5 atz. or.

Horrela, Bonaparteren *uskararen* inguruko ikerketak argia ikusten ari ziren bitartean, erronkariarren aspaldiko hizkuntza, hainbat faktorek eraginda, era arriskutsuan ari zen amildegira hurreratzen. Horien artean nagusizat jo ditzakegu XIX. mendean zehar egindako elizaren zein hezkuntzaren arloko erreformak, batez ere 1840tik aurrera izandakoak, eragin ezberdina izan bazuten ere ibarreko herrien artean (Burgin, adibidez, badirudi *uskararen* atzerakada Bidankozen baino belaunaldi bat lehenago hasi zela, eta Uztarrozen eta Izaban, berriz, belaunaldi bat geroago), eta ordura arte hainbat eremutan ezezaguna zen gaztelania pixkanaka tokia hartzen joan zen. Hala ere, horiek ez ziren kausa bakarrak izan, aipatzekoak baitira, besteak beste, «munduari irekiera» ekarri zuen Erronkaribarko errepidearen eraikitzea, gure herrietan finkatutako karabineroen erregimentuak edo gerra zibilak (karlistaldiak) eta haien ondorioak.

Bidankozeko kasuan, duela gutxi egindako ikerketa batek (Lekaroz, 2014) dio herrian *uskararen* familia transmisioaren etena 1870eko hamarkadan gertatu zela, eta adibide bitxiak aurkitzen dira: III. Karlistaldiaren (1872-1876) aurretik eta ondoren jaiotako familia bereko anai-arreben arteko *uskararen* jakintza maila ezberdinekoa izan zen: gerra aurretik jaiotakoak *uskaraz* ongi moldatzen ziren; gatazkaren ostean jaiotakoak, aldiz, ez hain ongi. Argi dirudi, bada, gerraren eraginak zerikusi handia izan zuela Bidankozen eman zen *uskararen* galerarekin. Hala ere, erronkariaren galera eteten ahal zen urte batzuk geroago arte, Uztarrozen eta Izaban bezala, baina Prudencio Hualde Bidankozeko apaiz euskaldunaren heriotza goiztiarrak –1879ko abenduaren 9an hil zen, 56 urte zituelarik³³– galera hori azkartu besterik ez zuen egin. Prudencio Hualderi dagokionez, esan behar da Bidankozeko parrokiatik lekualdatu zutela 1876ko urtarrilean, aurreko 23 urteak ia etengabe han eman ondoren, eta herriko bikariotzara bueltatu berria zela 1879ko martxoan. Lekualdaketaren zergatia ez dakigu, baina susmagarria dirudi herriko parrokian 23 urte eman ondoren, justu gerra amaitzeaz zegoenean, Hualde beste herri batera bidaltzea, eta, beharbada, honen guztiaren atzean Prudencioaren joera politikoa izango zen (San Martín, 1979).

³³ BPA, Hildakoen 3. liburua, 15. or.

Hualde hil baino pixka bat lehenago, 1878an, Bonaparterekin egindako elkarlanaren ondoren ezagutzen dugun *uskararen* inguruko lan bakarra egin zuen Mendigatxak, gorago aipatutako Arturo Campiónen *Orreaga* baladaren erronkarierarako itzulpena, alegia. Urte horretatik hasi eta Azkuerekin egindako lanak eta idatzitako gutunak arte (1902-1916) ez dugu Marianoren *uskararen* inguruko bestelako berririk.

Baina jarrai dezagun Marianoren ama-hizkuntzaren gainbeherarekin eta irudika dezagun nola gertatu zen. Mendigatxa etxean antzinatik erabilitako hizkuntza, hau da, *uskara*, 1880ko hamarkadan izan zen ordezkaturia. Abiapuntu-tzat hartuta etxe edo familia batean horrelako aldaketa sakonik gauetik goizera ez dela gertatzen arrazoi larririk tartean egon ezean, argi dago kanpoko faktore batean bilatu behar dela azalpena. Horrela, Juan Mainz Salbotxen etorrerarekin hasiko ziren, ziur asko, gaztelaniaz hitz egiten mendigatxarrean, 1883ko ur-tarrilaren 8tik aurrera, orduan ezkondu baitzen Inésekin³⁴, etxea oinordetu zuen Marianoren alabarekin. Juan ere Bidankozekoa zen, Santxena etxekoa, hain zuzen, baina izan daiteke bere etxean gaztelania lehenagotik sartua izatea. Zer dela eta? Herriko familiarik ahaltsuena zelako eta, agian horrexegatik, aldatuko zirelako gaztelaniara, hizkuntza hau boterearen edo modernitatearen ikurra zela ikusita, segur aski *uskara* aurrerapenarekin bateragarria ez zen «trauskilen mintzaira» bezala aurkezten zuen pentsaerarekin bat eginez.

Horrela, bada, gaztelania Mendigatxaren etxean sartua zen, bai, baina eman dezakegu Mariano eta Josefa senar-emazteek haien artean *uskara* erabiltzeari eutsiko ziotela, baita etxean geratzen ziren alabekin ere, nahiz eta suhiarekin gaztelania erabili. Litekeena ere bada, Mendigatxaren bilobarik zaharrenak, 1883ko amaieran jaiotako Capitolina izenekoak³⁵, neurri batean erronkaria ikasi izango zuela, beharbada ez amari entzuteagatik, baizik eta aitona-amonei eta, bereziki, Josefa amonari. Ez dugu, ordea, datu hori baieztatzeko modurik, lehenengo biloba hura lau urte zituenean hil baitzen nafarrieraren ondorioz³⁶.

³⁴ BPA, Ezkonduen 2. liburua, 362 atz. or.

³⁵ BPA, Bataiatuen 3. liburua, 151 atz. or.

³⁶ BABA, 12. liburua – Hildakoak (1887-1897), 3. or.

Inés eta Juan ezkondu eta hiru urte geroago, 1886an, finka dezakegu Mendigatxa etxeko *uskararen* erabileraren «itzulerarik gabeko puntua», eta Marianoren emaztea zen Josefa Pérez Markoren heriotzarekin lotuko genuke: urte hartako maiatzaren 21a³⁷. Hizkuntza mintzatuaren euskarria izango zen emaztea hil ondoren, Mendigatxak bere eremu pribatuenean ezin zuen erabili, eta, pixkanaka, etxean geratu zen alabarekin ere hitz egiteari utziko zion, honen senarrarekin erabiltzen zuten gaztelaniaren mesedetan (baina, bi hamarkada geroago Azkueri idatzi zion eskutitz batean agerian geratzen den bezala, garai batean hori izan zen etxekoen artean erabilitako hizkuntza³⁸ eta haren erabilera noizbait eten egin zen, agian une hartan berean). Eta horrela, Mendigatxaren gainerako bilobek, 1886 eta 1899. urteen artean jaiok, ez zekiten *uskara*, Azkue ezagutu ondoren Mariano gazteenei alferrik irakasten saiatu arren³⁹.

Marianoren seme-alabei dagokienez, esan bezala, Inés alaba zaharrena Juan Mainzekin ezkondu zen 1883an eta, aldi berean, seme zaharrena Juanen arreba batekin⁴⁰. Eusebia Felicia, alaba gazteena, berriz, Otsagabira ezkondu zen 1885ean⁴¹. Familia bideratu ondoren, eta jadanik alargun zela, Marianok Mendigatxa etxeko familiaburu izateari eutsi zion eta udal-politikara bueltatu zen, alkate izan baitzen 1887-1889⁴² eta 1897-1898⁴³ urteen bitartean.

Azkueren zerbitzuan

XX. mendea hasi berria zenean, 1902an, Dionisio Martín Uztarrozeko erretoreak (bitxikeria gisa, aipatzekoa da apaiz hau izan zela 23 urte lehe-

³⁷ BPA, Hildakoen 3. liburua, 21. or.

³⁸ Azkue Bibliotekako Artxiboa (ABA)-RMA-116-0721, 1903ko urriaren 29ko eskutitza.

³⁹ ABA-RMA-116-0721, 1903ko apirilaren 15eko eskutitza.

⁴⁰ BPA, Ezkonduen 2. liburua, 362 atz. or.

⁴¹ BPA, Ezkonduen 2. liburua, 367 atz. or.

⁴² BABA, Akten 11. liburua (1880-1890), 409. or.

⁴³ BABA, Akten 13. liburua (1895-1898), 136. or.

nago Prudencio Hualderen hileta egin zuena⁴⁴) Marianori idatzi zion Resurreccion Maria Azkuek Santa Grazin egin behar zuen topaketan bere parte-hartzea eskatzen zuela adieraziz «beste euskaldun batzuekin, Bonapartek izan zituen antzeko helburuekin». Mendigatxak ordurako 70 urte bazituen eta, bere izaera zuhur eta apala erakutsiz, zuen adinaren mugaz ohartarazi zion esanez agian berarengandik espero zena emateko ez zela gai izango eta beldur zela ez ote zen alferrikako bidaia izango⁴⁵.

Sentimendu horrekin joan zen bilera hartara Mariano eta, ziurrenik, Azkuek, hiru urte geroago, 1905ean, argitaratuko zuen *Diccionario vasco-español-francés* osatzeko laguntza eskatuko zien bertan elkartutako kolaboratzaileei. Topaketara zahartutako Mariano bat joan zen, bai, baina Mendigatxa ezberdin bat bueltatu zen, eraberritua, gaztetua, behintzat erronkarierari dagokionez. Ez dakigu bere ardura edo eskaini ahal zuen guztiaren garrantzia nola transmititu zion Azkuek, baina Mariano, lekeitiarrari udako bilera hartan emandakoaz gain, barruan zeraman *uskara* ahalik eta gehien erakusteko erabakitasun sendoarekin itzuli zen.

Era honetan, hileroko maiztasunarekin hasi zen Azkueri gutunak idazten, haietako asko gureganaino iritsi dira (Irigoyen, 1957), eta horietan Mendigatxak Erronkaribarko *uskara*, Bidankozeko ohiturak, bizimoduak, eguneroko pasadizoak, koplak, ipuinak, abestiak, esaera zaharrak eta beste kontu askoren berri ematen zuen. Horregatik, eta hizkuntzalaritzarako sortuak izan zirentzat interesa izateaz gain, altxor etnografikoa ere badira gaur egungo bidankoztarrontzat. Hala izan ez balitz, gure egunetara iritsi ez diren hainbat gaiez ez genuke ezer jakingo. Posta bidezko harremanaz gain, badirudi gutxienez hirutan elkartu zirela: lehenago aipatutako Santa Grazin edo Ligin egindakoan (nonbait, Dionisio Martinen gutunean Santa Grazin biltzekoak zirela esan arren, Mendigatxaren eskutitzetan irakurritakoaren arabera bilera Ligin 1902ko udan egin zela dirudi) eta Bidankozen beste bitan (1905eko udazkenean edo, agian, 1906an eta 1913ko maiatzean).

⁴⁴ BPA, Hildakoen 3. liburua, 15. or.

⁴⁵ ABA-RMA-116-0721, 1902ko ekainaren 6ko eskutitza.

Azkuek Marianoren ekarpenak erabili zituen hainbat argitalpenetan, baina, batez ere, jarraian azalduko diren bietan. Alde batetik, eta lehenago esan den moduan, 1905eko *Diccionario vasco-español-francés* dugu, eta bertan erronkarierari dagozkion hainbat hitz Mendigatxarengandik hartutako lekukotasunak dira, eta, horregatik, «R-bid» (roncalés de Bidankoze) markarekin agertzen dira, eta era honetan Uztarrozen Vicente Garderengandik lortutakoetatik bereizten dira, azken hauek «R-uzt» (roncalés de Uztarroze) marka baitute.

Bestalde, 1931n «Particularidades del dialecto roncalés» izenburutako artikulu luzea argitaratu zuen Azkuek. Lan horretan, euskalkiaren gramatikako hainbat kontu aztertzeaz gain, Mendigatxarengandik bildutako asko ere aurkezten da: 250etik gora esaera zahar, hainbat esamolde, ia berrogei herri koplak, partitura eta abesti batzuk letrarekin eta hiztegi luze bat, non, ziur asko, 1905eko *Diccionario vasco-español-francés* lanean argitaratutakoez gain, Marianok 1909an bukatzeko asmoa zuen hiztegiko hitz batzuk ere agertuko ziren (urte hartako eskutitz batean horrela adierazten du⁴⁶, baina Azkueren funtsetan momentuz ez da hori dioen dokumenturik agertu).

Azkuerekiko adiskidetasuna eta Mendigatxaren amaiera

Bien arteko elkarlan «profesionalaz» gain, Mendigatxaren eta Azkueren artean harreman pertsonala eta adiskidetasuna ere sortu zen. Harreman honen inguruko hainbat adibide aurki ditzakegu biek trukaturako eskutitzetan: kortesia hutsaz gain, Marianok bilobari lanpostua bilatzen saiatzeko eskatu zion Azkueri, loteria partekatu zuten, ezagunak zitzutenen agurrak igortzen zizkieten elkarri... eta Mendigatxaren azken urteetan, bere familiarekiko elkarbizitza okertu zenean, Marianoren ondorengoek Don Resurreccioni artekaritza eskatu zioten, honek parte hartu zuen, eta Mendigatxak, azkenean, Azkuek esandakoa ontzat hartu zuen, bere kalterako izango zela aurreikusi arren⁴⁷.

⁴⁶ ABA-RMA-116-0721, 1909ko urtarrilaren 7ko eskutitza.

⁴⁷ ABA-RMA-116-0721, 1915eko urriaren 25eko eskutitza.

Izan ere, eta bere eskutitzetan agerian geratzen den moduan, 1902tik 1916ra doazen hamalau urteetan zehar Mariano bakarrik geratzen joan zen, edo behintzat horrela sentitzen zen, «bere lagunik onena» hil ondoren⁴⁸ eta geratzen ziren bere adineko guztiek bide bera jarraitzen zihoazen heinean⁴⁹. Sentipen honi bere alaba eta suhiarekiko urruntzea gehituko zitzaion, hasieran etxea kudeatzeko irizpide ezberdinengatik⁵⁰ eta, geroago, nekazaritza lanetarako ezgai geratu ondoren⁵¹ (83 urterekin!), «aterperik gabeko zaharren egoitza» batera joateko asmoarengatik⁵². Mendigatxaren pentsaera honen adierazle da Azkueri gutunez gutun eskainitako esker ona, lekeitiarra geratzen zitzaion lagun bakarra zela ikusten baitzuen.

Azkenik, 1918ko uztailaren 31n zendu zen Mariano Mendigatxa⁵³, berak esango zukeen moduan, «86 urteak izeneko gaitzak jota». Beraz, joan den urtean bere heriotzaren mendeurrena ospatu zen. Kasualitatez, Mendigatxa Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia sortu ziren urtean hil zen, Azkue bera zela lehenbiziko euskaltzainburua. Resurreccionez ez zuen ahaztu Mariano bere adiskidea eta, 1931n lehenago aipatutako «Particularidades del dialecto roncalés» plazaratzeaz gain, urte bat geroago, 1932an, eta Mendigatxaren jaiotzaren mendeurrenarekin bat eginez, Euskaltzaindiko batzarrean Mariano Mendigatxari esker ona ematea eta omenaldi bat eskaintzea proposatu zuen, bere jaiotetxean oroitarri bat ipintzeko asmoarekin batera, besteak beste⁵⁴. Zoritxarrez, eta garaiko baldintzak zirela eta, badirudi oroitarria ez zela jarri Mendigatxa etxean.

Hori dela eta, bere heriotzaren mendeurrena aitzakiatzat hartuz, 2018ko irailaren 1ean Bidankozen omenaldi instituzionala zein herrikoia eskaini genion, Bidankozeko Aiza Bulguak, Euskaltzaindiak eta Bidankozarte Eki-

⁴⁸ ABA-RMA-116-0721, 1903ko irailaren 28ko eskutitza.

⁴⁹ ABA-RMA-116-0721, 1912ko apirilaren 14ko eskutitza.

⁵⁰ ABA-RMA-116-0721, 1911ko otsailaren 20ko eskutitza.

⁵¹ ABA-RMA-116-0721, 1915eko otsailaren 12ko eskutitza.

⁵² ABA-RMA-116-0721, 1915eko urriaren 14ko eskutitza.

⁵³ BPA, Hildakoen 3. liburua, 73. or.

⁵⁴ Euskaltzaindiko 1932ko apirilaren 28ko batzarren agiria.

menak antolatuta. Egun hartan Mendigatxaren *uskararen* arloko lanak zein biografiako hainbat datu ezagutarazteko, Bidankozarte ekimenak hitzaldia eman zuen Bidankozeko udaletxean. Gero, Mendigatxa etxearen aurrean, Bidankozeko alkateak eta euskaltzainburuak mintzaldi bana eman zuten eta, jarraian, eta Erronkaribarko Julián Gaiarre abesbatzaren parte hartzeari esker, Mariano Mendigatxak berak partitura eta guzti bildutako erronkarierazko hamar abesti kantatu ziren. Omenaldia amaitzeko, Mendigatxa etxearen aurrealdean jarritako xaflari estalkia kendu zioten eta, era honetan, aurrerantzean Mendigatxaren jaiotetxearen aurrean pasatzen denak gure pertsonaia ospetsu hau gogoratu ahal izango du, Prudencio Hualderekin duela berrogei urtez geroztik egin ahal den modu berean.



Mendigatxaren omenez ipinitako xafla.
[Iturria: Bidankozarte argazki funtsa]

Bibliografia

AZKUE ABERASTURI, Resurreccion Maria, 1905, *Diccionario vasco-español-francés*, Tours: Alfred Mame et filsen inprimategia.

———, 1931, «Particularidades del dialecto roncalés», *Euskera*, 207-406.

Euskera. 2018, 2, 1. 393-417. Bilbo
ISSN 0210-1564

BONAPARTE BLESCHAMP, Louis Loucien, 1858, *Canticum trium puerorum in XI vasconicae linguae dialectos ac varietates versum*, Londres: editio altera.

———, 1863, *Carte des sept provinces basques montrant la délimitation actuelle de l'euscara et sa division en dialectes, sous-dialectes et variétés*, Londres: Stanford's geographical stablishment.

———, 1866, [Bidankoze, Urzainki eta Uztarrozeko azpieuskalkietako hiztegi txikia – Eskuizkribua], Bonaparte Funtsa, N. 114, Nafarroako Artxibo Nagusia, Iruña.

———, 1867, *Observations sur le formulaire de prone conservé naguère dans l'Église d'Arbonne*, Baiona, Lapurdi: Veuve Lamaignèrenen inprimategia.

———, 1869, *El salmo quincuagésimo traducido al vascuence aezcoano, salacenco y roncalés*, Londres.

———, 1869, *Le cantique des trois enfants dans la fournaise dans les dialectes basques d'Aezcoa, de Salazar et de Roncal*, Londres.

———, 1869, *Le petit catéchisme espagnol du P. Astete traduit en trois dialectes basques*, Londres.

———, 1872, *Études sur les trois dialectes basques des vallées d'Aezcoa, de Salazar et de Roncal*, Londres.

———, 1879, «Orreaga (correcciones a la traducción al roncalés)», *Euskara*, 1, 114-116.

CAMPIÓN JAIMEBÓN, Arturo, 1880, *Orreaga*, Iruña: Joaquin Lordaren inprimategia.

HUALDE MAYO, Pedro Prudencio, 1866, *Catecismo español de la doctrina cristiana [...] traducido al vascuence de Vidángoz por su cura párroco D. Prudencio Hualde [...]*. [Eskuizkribua], Bonaparte Funtsa, N. 117, Nafarroako Artxibo Nagusia, Iruña.

———, 1866, *Jesu-Cristo gore Geinaren Evangelio Sainiua según San Mateoc*. [Eskuizkribua], Bonaparte Funtsa, N. 76, Nafarroako Artxibo Nagusia, Iruña.

IDOATE IRAGUI, Florencio, 1977, *La comunidad del valle de Roncal*, Iruña, Nafarroa: Nafarroako Diputazioa.

IRIGOYEN ECHEVARRÍA, Alfonso, 1957, «Cartas de Mariano Mendigacha a D. Resurrección María de Azkue», *Euskera*, 2, 119-170.

LEKAROZ MAZIZIOR, Gorka, 2014, «Bidankozeko gerraosteko euskaldunak», *Uztaro*, 90, 43-57.

MARTÍN, Andres, 1825, *Historia de la guerra de la División Real de Navarra contra el intruso sistema, llamado constitucional, y su gobierno revolucionario*, Iruña: Javier Gadearen inprimategia.

MITXELENA ELISSALT, Koldo, 1958, «Un vocabulario aezcoano, salacenco y roncalés preparado por el príncipe Bonaparte», *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, XIV. urtea, 335-364.

NICOLAO, Ángel, 1812, [Otoitzak – Eskuizkribua], Bonaparte Funtsa, N. 116, Nafarroako Artxibo Nagusia, Iruña.

PÉREZ ARTUCH, Ángel María, 2016, «La epidemia de cólera de 1855 en Vidángoz (Valle de Roncal)», *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, 90, 237-265.

RODRÍGUEZ FERRER, Miguel, 1873, *Los vascos, su país, su lengua y el príncipe L. L. Bonaparte*, Madrid: J. Nogueraren inprimategia.

RIEZU, Jorge, 1958, «El príncipe Luis Luciano Bonaparte», *Príncipe de Viana*, 70-71, 149-164.

SAN MARTÍN, Juan, 1979, «P. Hualde Maio, Erronkariko ‘uskararen’ lekuko», *Euskera*, XXIV, 511-519.

URQUIJO IBARRA, Julio, 1910, «Cartas escritas por el Príncipe L.L. Bonaparte a algunos de sus colaboradores (continuación)», *Revista Internacional de Estudios Vascos*, 4, 233-297.

ZERIO SEGURA, Faustino, 1961, «Cartas de D. Resurrección María de Azkue a Mariano Mendigacha», *Euskera*, IV, 181-208.

Hemeroteka

Noticias de España – Sádava (21 de diciembre de 1835). *Eco del Comercio*, 2.